



MUS TXAPELKETA KULTUR ASTEA HASTEKO

Hilaren 23a arte ekitaldi ugari izango dira Iruran; herriko arte-zaletuen lanen erakusketa ere izango da >4

**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**


hitza



**Ostirala
2010-05-14**

VIII. URTEA 2.000. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO




I. TERRADILLOS

JOSE ANTONIO RECONDO IDAZLEA

«Iberiar penintsulako lehen errepidea izan zen Gaztelako Errege Bidearekin batera»

TOLOSA 'Tolosatik Iruñerako Errege Bidea. Bainuetxe, benta eta diligentziak. Eta honen inguruan garatu zen bizitza' aurkeztu zuen atzo z



Oliveirak Afrikako animaliak eta loreak ere margotzen ditu. A. BELAUZARAN

Portugalgo paisaiak eta Afrikako animalien loreak Jubilatuen tabernan

ALEGIA Fernando Oliveira margolari portugaldarraren hamar lan ikusi daitezke 5

93 garaje tasatu erosteko aukera Voith-Gorostidin

TOLOSA 12.000 bat euro balio dute; babestutako 100 etxebizitza egingo dituztela ere iragarri dute 3

Tolosa&Co

K Kirol jarduera**Gaur, maiatzak 14****Areto futbola**

■ Usabalgo goiko kantuan, 20:45ean, emakumeen arteko partida: Laskorain - Altza.

Bihar, maiatzak 15**Areto futbola**

■ Usabalgo beheko kantuan, 10:30ean, jubenil mailakoan partida: Laskorain - Azpeitia.
■ Uzturpe pilotalekuan, Tolosa Kup, 14:00etatik aurrera.

Eskubaloia

■ Usabalgo beheko kantuan, 12:00etan, infantil mailakoan partida: Tolosa B - Bergara.
■ Usabalgo beheko kantuan, 18:00etan, senior mailakoan partida: Tolosa - Leizaran.

Saskibaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, infantil mutilak: Ego Take - Antigua Luberi.
■ Usabalgo goiko kantuan, 10:30ean, infantil mutilak: Ipar Take - Zast Mitxelena.
■ Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan, jubenil mutilak: Take - Atletico San Sebastian.
■ Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan, nazional mailako partida: Bide Bide Ibiza - Mikeldi.

Futbola

■ Usabalgo futbol zelaian, infantilen ohorezko mailakoan partida, 11:30ean: Tolosa CF - Añorga.
■ Berazubiko zelaian, 16:00etan, lurraldekako ohorezko mailakoan partida: Tolosa CF - Pasaia.
■ Berazubiko zelaian, 18:00etan, Jubenilen Euskadiko Kopa: Tolosa CF - Sestao River.

Etzi, maiatzak 16**Areto futbola**

■ Usabalgo goiko kantuan, 10:15ean, Gipuzkoako Ligako lehenengo maila: Tolargi - Lazkao.
■ Uzturpe pilotalekuan, Tolosa Kup, 13:00etatik aurrera.

Eskubaloia

■ Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, junior mailakoan partida: Tolosa - Ereintza.

Futbola

■ Berazubiko zelaian, infantil txiki mailakoan partida, 11:00etan: Tolosa CF - Añorga.

E Elkarrizketa

JOSE ANTONIO RECONDO > Medikua eta idazlea

«Garai hartako bizimoduaren inguruan hitz egiteko baliatu dut liburua»


Gizartea » 'Tolosatik Iruñerako Errege Bidea. Bainuetxe, benta eta diligentziak. Eta honen inguruan garatu zen bizitza' liburua aurkeztu zuen atzo Tolosan.

IÑIGO TERRADILLOS

Medikua lanbidez, Jose Antonio Recondok (Tolosa, 1944) hainbat liburu eta artikulu idatzi ditu medikuntzaren inguruan. Bere interesa, ordea, medikuntzatik haratago doa, eta historiaren alorreko gaiekin ere ausartu da. 2007ko apirilean *Tolosa y la provincia durante la ocupación Francesa (1808-1813)* kaleratu zuen, eta 2008ko ekainean *Medicina y beneficencia en Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX*. Oraingo honetan Tolosatik Iruñerako bidea aztertu, eta bertako pasadizoak kontatu ditu, *Tolosatik Iruñerako Errege Bidea. Bainuetxe, benta eta diligentziak. Eta honen inguruan garatu zen bizitza* liburuan. Atzo aurkeztu zuen Tolosako udaltxearen.

Nolako pisua izan zuen bide honek gure historian?

Iberiar penintsulako lehendabiziko errepidea izan zen Gaztelako Errege Bidearekin batera. Azken hau Madrildik Irunera doa da. Bestalde, Tolosatik Iruñera ziohona Zaragozarako bidearekin batzen zen. Bi bide hauek oso garrantzitsuak izan ziren, bertatik diligentziak eta gurdiak bezalako lau gurgpileko ibilgailuak igaro zitezkeelako. 1786tik 1792ra eraiki zuten. Iraultza eragin zuen bide berriak, izan ere, ordura arte Gipuzkoara ferra bideetatik garraiatzen zuten merkantzia. Zaragozatik Tolosara bitarte diligenza zerbitzua zegoen. Bi konpainiak ematen zuten, Aragoikoa bata, eta Nafarroakoa bestea. Txartelak oso garestiak izaten ziren, beraz, herri-tar xumeek galeretan edo gurdietan egiten zuten bidaia. Hori



merkantzia garraiatzeko ibilgailuak ziren, mendebaldeko gurdien modukoak.

Bideari ezetik haren ingurukoari ere begiratu diozu.

Bidearen inguruan bentak eta ostatuak eraikitzen hasi ziren, negozioa egin eta merkatariei laguntzeko. 27 benta eta ostaturen arrastoak aurkitu ditut bidearen ondoren. Duela hamar bat urtera arte bide hau altxor bat zela esan daiteke eta ia dena mantentzen zen, baina pixkanaka desagertuz joan dira, autobidearengatik, besteak beste. Dena den, bide hori ondo mantendu den bide bakarretakoa dela esan dezakegu.

Horiematik, zenbat mantentzen dira gaur egun?

Gaur egun 17 eraikin mantentzen dira. Irekita dauden bentak bakarrik, Mugirokoa eta Ayestaran hotela dira. Azken honetan izena soilik mantendu dela esan daiteke, eta Mugirokoan, berriz, eraikina ere bai.

Benta eta ostatu hauen inguruan ikertzen joan heinean zerekin egin duzu topo?

Liburua baliatu dut jendeak garai haietan zituen ohituren inguruan

hitz egiteko. Hainbat dira topatu ditudan istorioak eta gertakariak. Benta eta ostatu hauek lekua zuten ibilgailuak gordetzeko, eta horregatik, gudetarako erabili zituzten tropen kuartel moduan. Atalluko, Berriozarko edota Lekumberriko bentak, esaterako. Horien inguruko gerra garaiko pasadizoak eta kontatzen ditut. Bestalde, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko mugan Ilarrazun, Lizartzan, izaten zen kontrabandoaren berri ematen dut; edota Betelu, gerra garaian eta gerra ondorenean, kulturalki eta politikoki landutako eta aurreratutako herria zela azaltzen dut, batzokia eta zentro errepublikanoa zegoelako, besteak beste. Lekumberriren kasuan ere bada gertaera berezia, hain zuzen ere, oporretarako herria izaten zelako, eta horrek eragina izan zuelako gazteriaren; neskek, esaterako, oporretan joaten zirenekin, hau da, maila altuagokoekin erlazionatu nahi izaten zuten, eta tenisean jokatzen zuten edota zaldian ibiltzen ziren. Bestalde, Mundu Gerran europar ugari etortzen ziren, euren lurraldeetatik alde eginda, eta ostatuetan aurkitzen zuten ba-

besa. Ostatu bateko jabearen alaba frantses batekin maitemindu zen, eta istorio polit hori ere kontatzen dut, topatu nituen gutunak erabiliz. Horrelako asko topatu daitezke liburuan.

Nolatan hasi zinen gai hau lan-tzen?

Tolosatik Iruñerako bidea oso gertukoia izan da beti. Begirunea edukitzea diot, izan ere, txikia nintzela opor egunak igarotzera joaten ginenean Ayestaran hotelera eta Mugiroko bentara eta oroitzen oso politak ditut. Gogoan dut, esaterako, nola autotik atera egiten ginenean mutikoak Azpirozko gaina igo ahalizateko. Diligentziak ere antzerako zerbaitek gertatzen zen. Gero, medikuntza ikasten ari nintzela Iruñean, Roncalesan bertatik igarotzen nintzen, eta alde batera eta bestera begiratuaz joaten nintzen. Eraikin zaharrak, utziak, ikusten nituen, eta ez nekien zergatik zeuden horrela. Betidanik izan dut gai hori aztertzeko nahia.

«Txikitana maiz igarotzen nintzen bide honetatik, eta beti eduki izan diot begirune handia»**«100 lagun ingururekin hitz egin dut; jendeak bere historia kontatzeko prestutasuna agertu du»****Ikerketa hau guztia egiteko denbora eskainiko zenion lanari.**

Medicina y beneficencia en Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX liburua 2008ko ekainean bukatu eta handik hilabete batera hasi nintzen honetan. Beteluko bainuetxea ikertzen hasi nintzen, eta gutxinaka ikerketan zehar gauza interesgarriak agertzen joan zitzaizkidan. Hasieran hemengo zonaldea aztertu nuen, eta gero zabaldu egin nuen eremua Iruñera iritsi arte. Azkenean Tolosatik Iruñerako bidean eta honen testuinguruan oinarritu nuen ikerketa.

Jende askorekin izan al zara lana osatzeko?

Bai. 100 lagun ingururekin izan naiz elkarrizketak egiten eta informazioa biltzen. Askok lagundu dute, prestutasun osoa agertu dute eruden istorioa kontatzeko, eta hori benetan eskertzekoa da.

Norizuzenduriko liburua da?

Iragana atsegin duen orori, eta bereziki lekuko historia gogoko duenari. Egia esan, azkenean guztiok jakin nahi izaten dugu nondik gertatzen. Halaber, gure historia egin dutenei omenaldi ere izan nahi du liburua.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Voith-Gorostidi eremuko 93 garaje tasatu erosteko aukera zabalduko dute

Azpiegiturak » Plaza bakoitzak 12.000 euro gehi beza balio du; izena emateko aukera hilaren 18an zabalduko dute.

ASIERIMAZ

Voith-Gorostidi eremuan 1.220 plaza egiten dituztenean, Tolosako parking kopurua nabarmen igoko da. Udalak atzo azaldu zuenez, garaje hauetatik 773 babes-tuak izango dira eta 437 libreak.

Jokin Bildarratz alkatearen esanetan, Udalak garaje tasatuak saltzeko baldintza-agiriak onartu ditu jadanik. Ondorioz, 93 plaza erosteko aukera zabalik dago. Bakoitzaren kostua 12.020, 24 euro gehi BEZ-a izango da. Izena emateko epea hilaren 18tik ekainaren 15era bitartekoa izango da eta zozketa egin beharko balitz, hau uztailaren amaieran egingo lukete.

93 garajeak tasatuak izango dira ziurtatzeko, etorkizunean hauetako garaje plazaren bat jabeak saldu nahi izatekotan, Tolosako Udalak izango du berau erosteko lehentasun. Era honetan, «saleros-



Tolosako udal ordezkariak: Olatz Peon, Jokin Azkue, Jokin Bildarratz eta Yurre Peñagarikano. A. IMAZ

keta zuzentasunez eta ezarritako prezioak errespetatuz egingo dela ziurtatuko du Udalak».

Uztailerako eta 2011rako

Jokin Bildarratzen esanetan dago-kiena egiten ari dira: «Batzuk gazteengan eta tolosarren gan kezka

sortzen ari diren bitartean, guk lanean jarraitzen dugu, erakunde serio baten moduan».

Aparkalekuen inguruan Udalak konpromiso bat hartu zuela azaldu zuen alkateak, eta pixkanaka hori betetzen ari direla esan zuen: «Alhondigian adibidez 500 plaza

ditugu, Lapurdin beste 200 eta kasu honetan, Voith Gorostidi eremuan 1.220 plaza sortuko ditugu, etxebizitzak baino 500 gehiago. Horietatik, %63 babes-tuak izango dira. Bestalde, jendea ez nahaste-ko, garrantzitsua da azaltzea plaza hauek Udalak ez dituela egiten».

Lapurdi eta Alhondigako plaza-ekin alderatuz, Voith Gorostidi eremu-koak merkeagoak direla ere azpimarratu zuen Bildarratzek.

Salgai jarriko diren 93 plaza hauek bi partzeletan joango dira. Lehena 2010eko uztailaren buka-rtuko dute eta bigarrena 2011n.

» 93 GARAJE TASATU

Lehentasuna nork?

- **Arramele auzoko bizilagunak.** Tasatua, kontzesioak edo pribatua den beste garaje plazarik ez badute, etxebizitza bakoitzak plaza bat lortu ahaliko du.
- **Alde Zaharreko bizilagunak.** Arramele auzoko baldintza berdina bezala, etxebizitza bakoitzak plaza bat.
- **Tolosako bizilagunak.** Aurreko baldintza berberak.
- **Arramele auzoko bizilagunak.** Lehendik gehienez parking plaza bat dutenak.
- **Alde Zaharreko bizilagunak.** 4. aurkitzen diren baldintza berberak.
- **Tolosako bizilagunak.** 4. eta 5. goen baldintza berberak.
- **Tolosaldeko herritarrak.** Aurrez plazarik ez baldin badute eta auto baten jabe baldin badira.
- **Tolosako langileak.** Azken bost urtean barruan, 3 urtetan Tolosan lan egin dutela erakusten dutenak.

Tolosan babestutako 100 etxebizitza gehiago egingo dituzte

A. IMAZ

Tolosako udal ordezkarien arabera 2010 eta 2013 urteen artean Tolosan 100 etxebizitza gehiago egingo dira, «guztiak babestutak». Honen berri zehatza ikasturte berriaren hasieran emango dute, hau da, irailean.

Jabetzan eta alokairuan

Jokin Bildarratz Tolosako alkateak azaldu zuenez irailean plan estrategiko berri bat aurkeztuko dute: «2010 eta 2013 urteen artean babestutako 100 etxebizitza jarriko ditugu martxan. Guztiak izango dira babestutak, batzuk jabetzan

eta besteak alokairuan. Plan estrategikoa egiteko agindua emanda dago eta ikasturte berrian aurkeztuko dugu jendeak ezagutu dezan».

Argibide gehiago udaren ondoren emango baldin badute ere, etxebizitzak adin desberdinetako

tolosarrentzat izatea nahi du Bildarratzek. Udal «arduradun» batzek horrela jokatu behar duela uste du Bildarratzek.

Izan ere, Tolosako alkatearen

esanetan, «batzuk zarata eta kezka sortzen duten bitartean, beste batzuen laguntzaz, gure lehentasuna aurrera egitea da; arduraz herria aurrera ateratzea».

'Gizakiaren minak' liburua aurkeztuko du gaur Linazasorok

A. IMAZ

Karlos Linazasoro idazle tolosarrak bere azken liburua aurkeztuko du gaur 12:00etan, Donostiako Udal Liburutegiko Sotoan. Erein argitaletxearekin kaleratu du *Gizakiaren minak* izeneko lana. Narratiba generoan kokatzen da eta 160 orrialde ditu. 14,50 eurotan jarriko dute salgai.

«Ipuin ederrak»

Argitaletxearen arabera, «Karlos Linazasororen ipuinak gizakiaren mindura dute kontagai. Ez dira horregatik umore ttanta baten faltan gelditzen, gehienetan ironiak azaleratu ohi duen irribarre ezti-min-gosetetik gertuago dauden arren. Ipuin onak halakoak izan ohi dira,

beti gorde izan ohi dute istorio triste bat bere baitan. Eta honako hauetan ere halatsu gertatzen da. Ez du askorik aztertu behar izan egileak gizakion bihotz azpilduretan minduraren arrastoak han eta hemen antzemateko. Samurtasuna eta xumetasuna dira, baina, ipuin eder hauek eskaintzen diguten altxorra, eta txirikordatutako ipuinen xarma dotorea familia desegun baten istorioa harilkatzeko orduan».

Erein Argitaletxeko kideen esanetan, bide berrietatik dabil oraingoan idazlea: «Linazasorok alde egiten du liburu honetan bere ohiko bidetik, asmo berriak saiatzuz. Ezdeusetik istorio paregabeak sortzen maisu dugu egilea».



'Gizakiaren minak' liburua. HITZA

Harpidedun egiten bazara aisialdirako **bonu bat opari**

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.





Hotel bateko egonaldi bat, 2 laguntzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARRERAMENETARAKO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info



Uztailaren 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia zotz egingo dugu BERRIaren harpidedunen artean.
Eroski Bidaiak-en eskutik.

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.




Gaur hasiko dute ekitaldi ugariz osatutako Kultur Astea

Irura » Adin tarte guztietarako ekitaldiak prestatu dituzte; antzerkia, ipuin kontalaria, magia, lehiaketak, erakusketa...

ENERITZ MAIZ

Udaberriarekin batera, urtero legez, Iruran Kultur Astea ospatuko dute. Gaur hasi eta hilaren 23a bitarte, irurarrak, egunero izango dute ekitaldiaren bat parte hartzeko, ikusteko, gozatzeko edota ongi pasatzeko.

Adin tarte guztiak hartu dituzte kontuan eta denek izango dute parte hartzeko aukera. Gaur emango diote hasiera taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketa-ekin. Azkeneko kanporaketa eta finalaurdenak jokatu dituzte Trinketeen.

Bihar, San Isidro eguna, haurren marrazki lehiaketarekin hasiko dute. Eta arratsaldean, Kulturunean 18:00etatik aurrera, Jon Magic magoak haurrei zuzendutako emanaldia eskainiko du. Ondoren, herriko jubilatuak *Maritxu nora zoaz*, antzezlanaren egingo dute. Iluntzean berri, Zaharren Biltokian, afari herrikoia egingo dute. Kantua eta dantza, ez dira faltako. Igande arratsaldean berri, Xake partidak jokatu dituzte herriko plazan.

Asteazkenean, eta batik bat arratsaldean, tailerra, barre terapia ikastaroa, jubilatuen jokoak eta irteera, ipuin kontaketa, hitzaldia, Loatzo Musika eskolako emanaldia, kale antzerkia... izango dira.

Hilaren 21ean ostirala, lehenik eta behin San Miel jaien kartel lehiaketako irabazlea nor den esango dute. 18:00etan, Potxin eta Patxin pailazoak, *Kresalaren usaina* ikuskizuna eskainiko dute San Miguel plazan baina euria egingo balu, Kulturunean izango litzateke. 19:00etan bakailao lehiaketa

egingo dute eta bertan parte hartu nahi izanez gero, hilaren 18a baino lehen udaletxean izena eman beharko da.

Hilaren 14, 15, 18, 19, 20, 21 eta 22an kulturunean plastika gelan, Irurako arte-zaletuen lanak ikusgai egongo dira.

Hilak 22, Ikastolaren eguna

Hilaren 21ean, Ikastolaren eguna ospatuko dute egun guztian zehar. 11:30ean, Txistulariekin kalejira egingo dute plazatik hasi eta Ikastolaraino. 12:00etan, haur hezkuntzako ikasleek emanaldia egingo dute Ikastolan eta 12:30ean, lehen hezkuntzako ikasleen eta gurasoen arteko jolasak izango dira.

Ondoren 14:00etan bazkaria egingo dute eta bazkalostearen, eskal abestiak abestuko dituzte. Gainera, 12:00etatik 14:00etara, ikasleen eskulanak ikusgai egongo dira aretoan.

» KULTUR ASTEA 2010

Gaur

■ **22:30etan** taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketa: azkeneko kanporaketa eta final aurdenak Trinketeen.

Maiatzak 15, larunbata

■ **11:00etan** marrazki lehiaketa.
■ **18:00etan** Jon Magic-en magia saioa izango da haurrentzat Kulturunean.
■ **Ondoren** *Maritxu nora zoaz* antzezlanaren eskainiko dute herriko jubilatuek.
■ **21:00etan** afari herrikoia Zaharren Biltokian. Ondoren kantua eta dantzak.

Maiatzak 16, igandea

■ **16:30etik 18:30era** xake partidak plazan.

Maiatzak 17, astelehena

■ **17:00etatik 19:00etara** memoria tailerra Zaharren Biltokian.



Jubilatuak antzerkia eskainiko dute eta haurrek ere ongi pasatzeko aukera izango dute. E. MAIZ / L. GARCIA

■ **19:00etatik 20:30era** barre terapia saioak kulturunean.

Maiatzak 18, asteartea

■ **12:00etan** 2010eko, San Miel-tako kartela aukeratzeko lehiaketako lanak jasotzeko epea bukatuko da.
■ **17:00etan** jubilatuen jokoak; bote eta toka plazan egingo dituzte eta mahai-jokoak Zaharren Biltokian.
■ **Ondoren** sari-banaketa.
■ **17:00etan** Gazte Lekuan logoa pintatzea.
■ **17:30ean** Pello Añorgarekin lpuin-kontaketa haur-txokoan.
■ **17:30ean** hitzaldia Plazako ikastolako aretoan. Gurasoak eta seme-alaben hezkuntza, *Heziketa bidexka bat* da.

Maiatzak 19, asteazkena

■ **18:30ean** Loatzo Musika Eskolako ikasleen emanaldia.

Maiatzak 20, osteguna

■ **09:00etan** jubilatuen txangoa Iraxera.
■ **17:30ean** *Musika tresnen fabrika*, kale antzerkia plazan.
■ **19:00etatik 20:30era** barre terapia saioak kulturunean.

Maiatzak 21, ostirala

■ **12:00etan** 2010eko San Miel-tako kartela aukeratzeko lehiaketako epaia argitaratuko da.
■ **18:00etan** Potxin eta Patxin pailazo taldearen *Kresalaren usaina* ikuskizuna, San Miguel Plazan. Eurria bada kulturunean.
■ **19:00etan** bakailao lehiaketa. Parte hartu nahi duten guztiak udaletxean izena eman beharko dute maiatzaren 18a, asteartea baino lehen.
■ **22:30etan** taberna eta elkartearen arteko Mus Txapelketaren finalerdia eta finala Aitzpurua Jatetxean. Jarraian sari-banaketa.

Maiatzak 22, larunbata

■ **11:30ean** txistulariekin kalejira plazatik ikastolara.
■ **12:00etatik, 14:00etara** ikasleen eskulanak ikusgai egongo dira aretoan.
■ **12:00etan** Haur Hezkuntzako ikasleen emanaldia ikastolan.
■ **12:30ean** Lehen Hezkuntzako ikasleen eta gurasoen arteko jolasak.
■ **14:00etan** bazkaria. Ondoren euskal abestiak.

Maiatzak 23, igandea

■ **11:00etan** Meza Nagusia. Ondoren Irurako dantzari txikien saioa.

Erakusketa, Kulturunean

■ **17:00etatik, 19:00etara** hilaren 14, 15, 18, 19, 20, 21 eta 22an Kulturunean plastika gelan. Irurako arte-zaletuen lanak ikusgai egongo dira.

Laburrak

San Isidro egunean afaria egingo dute

GAZTELU » Gaztelu herrian ere, mahaiaren bueltan bilduta, herritar guztiak San Isidro eguna ospatzeko aukera izango dute. Erroizpe Azpiko Kirol eta Kultur Elkartearen inguruan da afaria. Antolatzaileak, kultura batzordea eta elkarteak zuzendaritza izan dira.

Jubilatuaren txartela egiteko aukera Alkartasunaren

ANOETA » Alkartasuna biltokian, UDP jubilatuen txartela egiteko kanpaina martxan jarri dute. Gaurtik hasi eta hilaren 24a bitarte epea zabalik dago. Txartela egiteko beharrezkoa da NAN-aren fotokopia aurkeztea. Txartela doan egiten da.

Jaien egitaraua iragarriko duen azalaren lehiaketa

VILLABONA » Jaietako egitarauaren azala egiteko lehiaketan edozeinek parte har dezake. Kartelean, *Villabona-Santio Jaiak-Uztaila 2010* agertu beharko da eta gutxienez, 18x24 formatua izan beharko du. Lanak udal bulegoetan aurkezteko azken eguna ekainak 28a da.

Norm: Irada33@gmail.es Euskal Herriko produktuak, ekoliztearengandik zure eskuratu

Alemarian bizi naiz azken bast urte hauetan, eta Euskal Herriko Plazan eskatzen ditut ardoa, garagaradua eta barrazki kontserbak. Etxean bezala, ez baita inon jaten.

19,45 € Erref.: 120002 Larre-gain sagardoa 12 botila

33,36 € Erref.: 260001 Pagoa, garagarado horia 24 botila

Beste produktu askoren artean, hauek topatuko dituzu Euskal Herriko Plazan.

www.euskalherriko plaza.com
plaza@euskalherriko plaza.com

ETXEBARRA
LARRA
EDONARRA

erosi gurean



Portugalgo paisaiak erakusgai

Alegia » Fernando Oliveira margolariaren hamar margolan daude erakusgai Alegiako Jubilatuen tabernan.

AGURTZANE BELAUNZARAN

Hilabetez egongo dira Fernando Oliveira portugaldarraren margoak Alegiako Jubilatuen tabernan. Erakusketa hamar margolanek osatzen dute, tartean, Portugalgo

Braganza hiriko kaleak daude, Austriako hiri bat ere bada, baita Afrikako animalia eta loreen margolanak ere.

Mihise gainean pintzelarekin egindako margolanak dira paisaia

eta animalienak, loreak aldiz akri-likoan margotuak daude.

Animaliak margotzen hasi berria dela aipatu du: «formarekin eta bolumenarekin jolastea gogoko dut».

Pintorea da bizibidez Fernando Oliveira. Margotzen Ordiziako Kultur etxean ikasi zuen, «koloreak nahastea eta sortzea gustuko dut. Nire margolanetan kolorea eta argitasuna nabarmentzen dira,

mundua nahi dudak koloretan ikusteko ahalmena ematen didate margolanek» aipatu du.

Portugalen jaio eta Legorretan bizi den margolari honek, erakusketa ugari egin ditu Ordiziako Barrrena Kultur Etxean eta bizileku duen Legorretan ere: «Pasa den urtean Legorretako jendearen erretratuekin egin nuen erakusketa herrian eta jendeak harrera ona egin zion».

Portugalgo artisaun azoka batera joango da aurtengo abenduan, «Alegian erakusgai jarri ditudan paisaiak eramango ditut azokara, Portugal iparraldeko hiri kolonialen margolanak». Bitartean, margolanak egiten jarraituko du, beti ere jaioterriarekin lotutakoak. «Margolanak hala ere, salgai daude eta interesa duen orok nirekin hitz egin besterik ez du» azaldu du Fernando Oliveirak.



Kultur Astea hasi da Albizturren

ALBITZUR» Loreak landatuz eman zioten hasiera Albizturko Kultur Asteari herriko gaztetxoek. Udaletxe azpian loreak lorontzietan sartu eta balkoian jarri zituzten apaingarri. Gaur, «Mendian galduta» antzerki emaldia eskainiko dute arratsaldeko 19:00etan. Larunbatean, sagardotegian bazkaldu eta Beasainen pasako dute arratsaldea. A.BELAUNZARAN

EUSKAL HERRIKO LESBIANA, GAY, TRANSEXUAL ETA BISEXUALEN ELKARTEA
GEHITU.ORG

informazioa
eta laguntza

943 45 17 22
infasis@gehitu.org

2010
TRANSFORMAZIOZAKO URTEA

Herritarren zalantzak argitzen eta eskaerak entzuten izan da Olano

Berastegi » Bertan Foru Aldundiak Berastegiko balio anitzeko zentroaren proiektua diruz lagunduko duela berretsi zuen.



60 lagun inguru elkartu ziren Gaztañondo elkartearen egindako ekitaldian. I. T.

ESTI EZEIZA

60 herritar ingururekin elkartu ziren herenegun Markel Olano, Gipuzkoako Diputatu Nagusia, eta Azpiegitura Foru Diputatu den Eneko Goia. Besteak beste, Olanok adierazi zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiak 800.000 euroko dirulaguntza emango diola Berastegiko Udalariko balio anitzeko zentroaren proiekturako.

Ekitaldian aztertu zen beste gaietako bat eta berastegiar asko kezkatzen zituena Berastegi Tolosarekin lotzen duen errepidearen egoera izan zen: «Ahuntzentzako egindako errepidea dirudi eta kamioibat parean tokatuz gero,

zenbait lekutan kostatzen da elkar gurutzatzea ere», azaldu zuen partaide batek. Honen aurrean, Azpiegitura Diputatuak hitz eman zion legegintzaldia amaitu aurretik Berastegi-Tolosa errepidearen segurtasunari dagozkion arazo guztiak konponduta egongo direla. Plazaolako Burdinolarekin gertatutakoak ere izan zuen tokia. Zenbait herritarren arabera, duela hiru urte inguru «txikizioa gertatu

zen Leitzarango ondare garrantzitsu batekin, kanal bat konpontzeko aitzakiarekin Plazaolako burdinolako ondare historikoa erauzi baitzen, nahiz eta Udalak eta Diputazioak hondamendiaren berri izan». Honela, azaldu zuten, Plazaolako burdinolarekin gertatua: «Balizko eremu arkeologiko horretan lanak hasi zirenean, gunea ez zegoen ez zerrendatuta eta ezta kalifikatuta ere».

Belabietako gimnastak, bikain

ERREDAKZIOA

Joan den larunbatean, jokatu zen Tolosako Usabal kiroledegian Gimnastika Erritmikoko Gipuzkoako Txapelketa eta oso emaitza onak lortu zituzten Belabietako gimnastek.

Goizean infantil eta kadeteen mailakoek jokatu zuten. Infantiletan Idoia Eceiza 10. geratu zen. Kadete A mailan Miren Eceiza 10. eta Kadete B mailan Maider Zabala lehenengo, ondorioz, datorren urtean A mailan jokatzen aukera du.

Arratsaldean jubentzen txanda izan zen. Jubentzen B mailan Belabietako taldea 2. geratu zen. Bakarka berriez, B mailan Irati Maritxalala



Gimnastik Erritmikoko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen larunbatean. HITZA

rrek 2. postua erdietsi zuen, beraz datorren urtean A mailan lehiatuko da eta Onintza Odriozola 3. A mailan Izaro Esnaolak 4. eta Garazi Egiguren lehenengo amaitu zuen.

Gimnasta hauek hurrengo erronka Euskadikoa jokatzea izango dute. Hau ekainaren lehenengo asteburuan izango da Leioan.

Herriarteko txapelketari ekingo dio bihar Leitzak

Pilota » Bihar abiatuko da lehia; Amazabal pilotalekuan Lizarra izango du aurkari; 10:30ean hasiko dira partidak.

ERREDAKZIOA

Abian da 41. Nafarroako Herri Artekoko Pilota Txapelketa. Hamaika herrik hartuko dute parte, iaz baino bi gehiagok, eta beste behin ere, horien artean izango da Leitzak. Bihar, Amazabal pilotalekuan Lizarrakoak izango dituzte aurkari eskualdeko pilotariak. Jardunaldia 10:30ean hasiko da.

Lau mailatan banatuta, binaka zortzi pelotari ariko dira lehian.

Alebinetan, Ander Alduntzin eta Jon Lezea ariko dira; infantiletan, Mikel Sagastibelza eta Anartz Olano; jubentzetan, Xabier eta Jon Jaunarena eta azkenik, seniorretan, Iñigo Zubillaga eta Mikel Iriarte. Iaz, Iruñearen aurkako finala galdu ostean, bigarren geratu ziren eskualdekoak, eta aurten ere faboritoetako batzuk dira.

Leitzakoek gain, herri hauek hartuko dute parte: Lizarra, Uharteko Arakil, Arbizu, Altsasu, Huarteruñea, Baztan, Doneztebe, Irurtzun, Iruñea eta Burlata.

Sailkapen fasea ekainaren 13ra bitartean jokatuko da, eta hil horretan bertan, 20an eta 27an finalurrekoak izango dira, eta finala, uztailaren 4an.

Aizkolarien dema bihar Amazabalen, 19:30ean

Leitza » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako jaialdia jokatuko da iluntzean herriko pilotalekuan.

ERREDAKZIOA

Bihar, pilotariei aizkolariek hartuko diete erreleboa arratsaldean. Izan ere, Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako saioa jokatuko da Amazabal pilotalekuan. 19:30ean hasiko da jaialdia. Alde batetik, 23 urtez azpikoak lehiatuko dira, eta bestetik, elitekoak.

Jaialdia, 23 urtez azpikoek kanporaketa saioarekin abiatuko da. Bertan, irabazten duenak, ziertatua izango du finalurrekoetarako txartela. Hasteko, Mugerza II.a Ander Erasun aizkolaria leitzararra

aurka ariko da. Ondoren, Mugerza III.a Oihan Larretxearen kontra. Azkenik, Leitzako Ruben Saralegi eta Arostegi gazteen artekoa ikusi ahal izango da. Denek ere lau mozketak egin beharko dituzte, era ezberdinetan.

Honen ondotik, jaialdiaren baitan, Donato Larretxea eta Juan Jose Lopez Azpilikueta izango dira aurrez aurre. Elite mailako B taldeko irabazlea nor den erabakiko dasaio horretan.

Igandean berriz, Zeanurin Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako beste jardunaldi bat jokatuko da. Jubentzetan, Eneko Saralegi leitzararra ariko da, Eneko Otaño, Gaizka Lopez eta Mikel Usiarekin batera.

Bestetik, Arratian, Nazabal eta Arrospide Elite mailako A taldeko garaipenaren bila ariko dira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK
SPUTNIK DORREEN ONDOAN
ZURE BETIKO EHORZTETXEA
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40
ZERBITZU IRAUNKORRA
902 402 900



13°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	12°
HOTZENA	8°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebecka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Musika

■ **Tolosa.** Natural Project Frontoi kafetegian 23:00etan.
■ **Tolosa.** Cordura eta Bugatti taldeen emanaldia Bonberenean 22:30ean.

Dokumentala

■ **Tolosa.** *Saharaz 25 minutu* dokumentala Kultur Etxean 19:30ean, Pili Ramirez zuzendariarekin; ondoren afaria Zerkausion (6 euro).

Aurkezpena

■ **Tolosa.** Jon Mintegiagaren *El filtro, memorias de los refugiados vascos en Uruguay* liburuararen aurkezpena hilaren 21ean Otsabin.

Elkarretaratzea

■ **Tolosa.** *Voith-Gorostidi: Ustelkeria* izenpean salaketa elkarretaratzea 19:30ean udaletxe aurrean.

Aisialdia

■ **Irura.** Kultur Astearen baitan jubilatuek herriko txikienei eskainitako *Maritxu nora zoaz* antzeziana 18:00etan eta ondoren Jon Magic magoak saioa eskainiko du kulturunean.

Zinema

■ **Tolosa.** *La casa de mi padre* filma Leidorren 19:30ean. Sarrera doan.

Deialdia

■ **Anoeta.** Gaztetxearen 11. urteurrena: 19:30ean txupinazioa. Ondoren, afaria eta mus eta futbolin txapelketa.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Tolosa, M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Erromatarren garaia ezagutzuz

VILLABONA-ZIZURKIL • Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako LH 1. mailako ikasleak Irungo Oiasso museora joan ziren txango bat egitera pasa den astean. Erromatarren garaian murgiltzeko aukera izan zuten gatzetxoek, eta «oso gustura» ibili ziren. «Goizean museoa bisitatu zu-

ten, bertan, erromatarren garaiko aztarna ugari ikusteko aukera izan zuten. Arratsaldean berriz, Ikastolatik Amasara joan ziren arratsalde pasa. Primerako eguraldia egin zuen eta oso ongi pasa zuten», argitu dute Ikastolako arduradunek. HITZA

A Agurrak



Urte askoan!

Zorionak amoni!
Besarkada bero bat eta muxu bat
etxeokoen partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxe bulegoa

agurrak



GAUR da XI. HITZA argazki lehiaketan bozkatzeko azken eguna.
HARPIDEDUNEK bakarrik bozkatu dezakete!
(8 argazki finalistak webgunean daude)

Parte - hartzaile guztien artean HITZA produktuen sorta bat zozketatuko dugu.

HITZA aste santuko argazki lehiaketa

